

SOLAS JOLAS 2019 PROGRAMAREN FUNTZIONAMENDUA

ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

LEHENDABIZIKOA.-Xedea

Oinarri hauen helburua SOLAS JOLAS 2019 udaleku irekien funtzionamendua arautzea da.

BIGARRENA.-Programaren helburua

SOLAS JOLAS 2019 udaleku irekiaren helburua hezkuntza bi hizkuntzatan (**euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz edota euskaraz eta frantsesez**) jasotzen duten haurren artean euskararen erabilera sustatzea eta hizkuntzarekiko haurraren jarrera hobetzea da.

HIRUGARRENA.-Parte hartu dezaketenak

SOLAS JOLAS 2019 Haur Hezkuntzako bigarren zikloko 4 eta 5 urteko gelako haurrentzat (2013 eta 2014an jaiotakoak) eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 4. maila bitartean dauden Irunen errolatutako haurrentzat edo aipatutako zikloetan Irunen ikasten ari diren eta beste udalerritakoak diren haurrentzat zuzendutako programa bat da. Lehen aipatutako mailetako haurrez gain, parte hartu ahal izango dute **5. eta 6. mailan** dauden dibertsitate funtzionala duten umeez, **12 urteko adin mugarekin**. Bigarren oinarrian aipatutako helburua betetzearren D, B eta A ereduaren arabera hezkuntza jasotzen duten umeez parte hartu ahal izango dute Solas Jolasen.

Era berean, irundarra izan eta Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan **euskara hutsez** edota **euskara eta frantsesez** ikasten duten adin bereko haurrek parte hartu ahal izango dute.

Dibortziatuta edo legez bananduta dauden gurasoen seme-alabek, nahiz eta Irunen errolatuta ez izan, uztaila edo abuztu osoan zaintza duen gurasoa Irunen errolatuta baldin badago, zaintzapeko hilabetean parte hartzeko aukera izango dute. Zaintza egiaztatzeko epaitegiko sententzia edo ziurtagiria ekarri beharko da.

LAUGARRENA.- Ekintzaren egutegia eta ordutegia

Programa, 2019ko **uztailaren 3tik 30era eta abuztuaren 5etik 30ra** garatuko da lanegunetan. Ekintzaren ordutegia 09:00etatik 13:00etara da. Ez da inor onartuko lehenago edo beranduago, justifikatutako salbuespenetan izan ezik. Anai-arreben kasuan, plaza ikastetxe diferentean dutenean, Euskara Arloak mekanismoak adostuko ditu eragindakoeekin 15 minutuko tartea izateko, 8:45tik 9:00etara, denak garaiz iritsi ahal izateko.

Ordutegian aldaketarik balego (irteerak, jaialdiak...) talde pedagogikoak bezperan jakinaraziko du.

Dena dela, talde guztiek izango dute irteera bereziko egun bat. Egun horretako ordutegia aldatuko da ondoren zehazten den moduan: Haur Hezkuntzako haurren ordutegia 09:00etatik 14:30era izango da, eta Lehen Hezkuntzakoena 09:00etatik 17:00etara. Talde pedagogikoak aldeztu aurretik jakinaraziko du zein egunetan egingo den.

BOSGARRENA.-Aurreinskripzio eta erreklamazio epea

SOLAS JOLAS 2019 udalekuan parte hartzeko **aurreinskripzioa martxoaren 4tik 15era**, biak barne, egin behar dute interesdunek. Aurreinskripzioa bide hauek erabiliz egingo da: **www.irun.org web orriaren bitartez, HAZeko autozerbitzu terminaletan egunero 8:00etatik 22:00etara**, edo 010/ 943 50 51 52 telefonora deituta astelehenetik ostiralera 8:00etatik 20:00etara.

Aurreinskripzioa egiteak programa hau arautzen duten oinarri hauek onartzea dakar.

Aurreinskripzioa egitean, programan parte hartu nahi duen haurraren datu hauek emango dira: izen-abizenak, helbidea, **posta elektronikoa, eskuko telefonoa**, aukeratutako txanda (uztaila, abuztua edo biak), ikasten ari den ikastetxearen izena, zikloa eta eredia, eta Solas Jolaserako aukeratutako ikastetxea/ak, interesdunak azalduko du haurrak dibertsitate funtzionala duen ala ez. Zozketari begira familia unitateko kide batek baino gehiagok parte hartu nahi badu, esan beharko du bakarka edo familiako kide guztientzat egin nahi duen aurreinskripzioa.

Oso garrantzitsua da **eskuko telefonoa** eta **posta elektronikoa** bat ematea, izan ere, baliabide horiek erabiliko dira komunikazio guztiak egiteko. Eman ezean, interesatuak erne ibili beharko du programaren inguruan komunikatzen den guztiaren berri izateko (epeak, komunikazioak...).

Horretaz gain, uztaileko txandan izena ematen duenak adierazi beharko du **errepekan** parte hartu nahi duen, hau da, **edozein ikastetxetan parte hartzeko prest** dagoen.

Aktibitatea garatzeko beharrezkoa izango da aurre-inskripzio kopuru minimo bat egotea zentroko eta ziklo bakoitzeko: 10 Haur Hezkuntzan eta 12 Lehen Hezkuntzako bi zikloetan. Dena dela, antolamendu beharregatik kopuru horiek alda daitezke.

SOLAS JOLASerako eskaintzen diren zentroyen batean aurreikusitako aurre-inskripzio kopuru minimoa jasoko ez balitz, zentro hauek eskatu dituztenei beste aukera batzuk eskainiko dizkie udalak.

Zozketarako onartutako **behin-behineko zerrenda** www.irun.org web korporatiboan jarriko da ikusgai **martxoaren 25ean**. Horretaz gain, zerrenda, 010/943 50 51 52 telefonora deituta ere kontsultatu ahal izango da, astelehenetik ostiralera 8:00etatik 20:00etara. Interesdunek **apirilaren 5era arteko epea** izango dute egoki ikusten dituzten **alegazioak egiteko**. **Zozketarako behin betiko zerrendak apirilaren 11n** argitaratuko dira goian aipatutako tokietan.

Epez kanpo egiten diren aurre-izenemateak zain zerrendetara pasako dira azkenaren ondoren. Ez da aurre-inskripziorik onartuko maiatzaren 3tik aurrera, taldeak osatzeko behar-beharrezkoa ez bada.

SEIGARRENA.-Zozketa:

Programa honetan parte hartzea ZOZKETA bidez erabakiko da, interesatuek epe barruan egindako aurre-inskripzioen artean, datuak aztertu, zerrendak publikatu eta erreklamatzeko epea bete ondoren.

ZOZKETA, publikoa izango dena, **apirilaren 15ean** egingo da, eguerdiko 12:00etan, Udaletxeko Bilkura aretoan (San Juan Harria plaza, 1 Irun).

Zozketa honela egingo da:

a.- Bi zozketa egingo dira: bata uztaileko plazak emateko eta bestea abuztukoak. Uztaileko zozketari ekingo zaio lehenik.

b.- Zozketan **lehenetsiko** dira inoiz parte hartu ez dutenak, edo iaz izena eman, zozketan plaza ez egokitu eta programan parte hartu ez zutenak.

c.- Aurreinskripzio fitxa bakoitza talde hauetako batera lotuko da:

0 TALDEA:

DIBERTSITATE FUNTZIONALA DUTEN HAURRAK

1 TALDEA:

HAUR HEZKUNTZA (4 eta 5 urteko gelak), D EREDUA

2 TALDEA:

HAUR HEZKUNTZA (4 eta 5 urteko gelak), B, A EREDUAK

3 TALDEA:

LEHEN HEZKUNTZA 1. ZIKLOA (1. eta 2. maila), D EREDUA

4 TALDEA:

LEHEN HEZKUNTZA 1. ZIKLOA (1. eta 2. maila), B, A EREDUAK

5 TALDEA:

LEHEN HEZKUNTZA 2. ZIKLOA (3. eta 4. maila), D EREDUA

6 TALDEA:

LEHEN HEZKUNTZA 2. ZIKLOA (3. eta 4. maila), B, A EREDUAK

c. Goian aipatutako talde bakoitzean jasotako aurre-inskripzioei modu automatikoan zenbaki bana emango zaie eta honela talde bakoitzean zerrenda bat osatuko da.

d. Zozketa honela egingo da:

- Lehen lehenik zozketa zein heziketa ziklotik abiatuko den erabakiko da. Hori egiteko hurrenkera hau aintzat hartuko da goranzko ordenean aukeratutako ziklotik abiatuta.

- Haur Hezkuntza, D eredia
- Haur Hezkuntza, B, A ereduak
- Lehen Hezkuntza 1. Zikloa, D eredia
- Lehen Hezkuntza 1. Zikloa, B, A ereduak
- Lehen Hezkuntza 2. Zikloa, D eredia
- Lehen Hezkuntza 2. Zikloa, B, A ereduak

Zoriak erabakitako ziklotik gora abiatuko da zozketa, hau da, *Lehen Hezkuntza 1. Zikloa, D eredia* zoriz lehenengoa izatea egokituko balitz, hurrengo zikloa *Lehen Hezkuntza 1. Zikloa, B, A ereduak* izango litzateke eta horrela sei heziketa zikloak osatu arte.

- Hori egin eta gero, talde bakoitzeko zenbaki bat aterako da. Zenbaki hau izango da aipatutako taldeko zerrendetako aurre-inskripzio bati dagokiona. Aurre-inskripzio honetatik aurrera (hau barne dela) eta goranzko ordenean dauden plazak esleituko dira egindako zentro aukeraren arabera eta behin horiek beteta bigarren aukeraren arabera, horrela egin bada aurre-izenematean.
- 0 taldeko plazak esleituko dira lehenik. Kasu honetan plaza lortu duten haurren aurre-inskripzio fitxan anai-arrebarik izena emanda egongo balitz, honek modu automatikoan eskuratuko luke plaza.
- Ondoren, gainerako plazak zozketatuko dira zehaztutako ordenaren arabera. Lehentasuna emango zaie inoiz parte hartu ez dutenei edo iaz izena eman, zozketan plaza ez egokitu eta programan parte hartu ez zutenei. Dena dela, lehentasuna izateak ez du bermatzen plazarik eskuratzea.
- Egin den aukerarentzako plazarik ez balego, ikastetxe eta taldeetako zain zerrendetara pasako dira.
- Familia unitateko kide bat baino gehiago inskribaturik balego aurreinskripzio fitxa berean eta haietako batek plaza eskuratuko balu, besteek modu automatikoan eskuratuko lukete plaza, **baldin eta anai-arreba guztientzat tokirik balego.**
- Zozketa bukatzen denean, "**Errepeska**" aukera egin dutenak eta zozketan plazarik lortu ez badute "**Errepeska-zain zerrendara**" pasako dira eta lehentasuna izango dute ikastetxeetako zain zerrenden aurrean. "**Errepeska**" aukeratu **ez** dutenak aukeratutako "**ikastetxeetako zain zerrendetara**" pasako dira. **Bajak sortu ahala errepeskako zerrendetako hurrenkeraren arabera** hasiko dira betetzen, **ondoren** ikastetxeetako **zain zerrenden** arabera.

Zozketaren emaitzak www.irun.org web korporatiboan jarriko dira ikusgai **apirilaren 15ean**, 15:00etatik aurrera. Horretaz gain, emaitzak, 010/943 50 51 52 telefonora deituta ere kontsultatu ahal izango dira, astelehenetik ostiralera 8:00etatik 20:00etara.

Euskara Arloak erabakiko du zein plaza eskaintza egingo den SOLAS JOLAS 2019rako.

ZAZPIGARRENA.-Prezio publikoa ordaintzea eta behin betiko izenematea:

Behin zozketa eginda, Irungo udalak plaza eskuratu dutenei posta elektronikoko bat bidaliko die behin betiko izenematea egiteko beharko duten inskripzio-kodearekin eta erabili beharko duten loturarekin. Lotura horretan sartzeko IRUN TXARTELA edo beste ziurtagiri digital bat erabili beharko da.

Prezio publikoaren ordainketa eta behin betiko izenematea internetez egingo dira SAC24h zerbitzuaren bitartez (www.irun.org/sac). Horretarako epea 2019ko **apirilaren 23an** hasi eta **maiatzaren 3an, arratsaldeko 14:00etan**, bukatuko da. Nahi izanez gero, HAZeko autozerbitzu terminaletan (San Martzial kalea, 2) ere egin ahalko dira egunero 8:00etatik 22:00etara, maiatzaren 3an salbu, izan ere, egun horretan 14:00 arte egin ahalko dira.

Plaza eskuratu baina programan parte hartuko ez dutenek udalari jakinaraziko diote plazari uko egiten diotela behin betiko izenemate epean.

Irungo udalak 0 taldeko haurrei beren egoeraren inguruko txosten zehaztua eskatu ahal izango die, integrazioa bermatu ahal izateko eta programazioan egokitzapenak egiteko.

Era berean, irundarra izan eta Ipar Euskal Herriko ikastetxeetan (euskara hutsez edota euskara eta frantsesez) ikasten duten parte hartzaileei ikastetxeak egindako ziurtagiri bat eskatu ahalko die azalduz ikasketak zein portzentajetan egiten dituzten euskaraz.

ZORTZIGARRENA.- Errepeska, zain zerrenda eta epez kanpo izena ematea

Behin betiko izen-ematea bukatuta plaza hutsik balego, udal Euskara Arloak plaza horiek esleituko ditu. Lehen lehenik “**errespekan**” egon eta plaza eskuratu ez dutenei eskainiko dizkie, zain zerrendetako interesdunei gero, eta epez kanpo izena eman dutenei, azkenik.

Zain zerrendetan dauden anai-arreben kasuan, eta aurre-inskripzioa elkarrekin egingo badaute, batek plaza eskuratuko balu, familia unitateko beste kideek plaza lortuko lukete modu automatikoan, **baldin eta denontzako tokirik balego**. Gerta liteke, plazak beteak egoteagatik, anai-arreba guztientzat tokirik ez egotea, edo egonez gero, ikastetxe diferenteetan.

Behin betiko inskripzioa egiteko prozedura hasierako inskripzioetan erabilitako bera izango da, seigarren oinarrian jasotakoaren arabera.

Bigarren epealdia bukatuta, oraindik ere plazarik balego, Euskara Arloak iragarriko luke zein ikastetxetan eta ze adinekoentzat gelditu diren eta epe bat markatuko du plaza horiek betetzeko.

BEDERATZIGARRENA.-Prezio publikoa:

SOLAS JOLAS 2019ko prezio publikoa Udalak onartutakoa da:

A.- "SOLAS JOLAS" ZERBITZUAGATIK

I. TARIFA

Prezio publiko hau hurrengo tarifaren arabera jasoko da:

Izena emandako familia-unitateko <u>kide bat</u>	72,85 € hilabete eta haur bakoitzeko
Garai berean zerbitzu berean izena emandako familia-unitateko <u>bi kide</u> badira.	58,25 € hilabete eta haur bakoitzeko
Garai berean zerbitzu berean izena emandako familia-unitateko <u>hiru kide</u> badira	43,70 € hilabete eta haur bakoitzeko
Garai berean zerbitzu berean izena emandako familia-unitateko <u>lau kide</u> edo <u>gehiago</u> badira	29,10 € hilabete eta haur bakoitzeko

1. Hobariak

Kuota orokorraren %75eko hobaria aitortzen zaie Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duen bizikidetzaren unitateko kideei, baina ezin izango da bateratu beste salbuespen edo hobari batzuekin.

2.- Hobariak bideratzea.

Honako betekizun hauek egiaztatzen dituzten pertsonak jaso ahal izango dute tarifyan ezarritako hobaria:

-Irungo Udalak gaitutako baldintzen eta prozeduren arabera izena ematea SOLAS JOLAS programan.

-Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradun izatea.

-Irunen erroldatuta egon beharko dute bai programan parte hartzen duenak bai DBE laguntzaren titular onuradunak.

Hobariaren eskaera, berariaz adierazita egingo da, SOLAS JOLAS programan aurre-izenemateko formularioan ezarritakoaren arabera.

Hobaria eskatzen duen eskatzaile onuradunak (DBE jasotzen duena) behin-behineko izena emateko orrian agertu beharko du izena emandako parte-hartzailearen aita, ama edo tutore gisa.

Plaza esleituz gero, interesdunak **baimena eman** beharko dio **Irungo Udalari**, DBE jasotzen duela eta erroldatuta dagoela egiaztatzeko. Eman ezean, interesdunak aurkeztu beharko du DBE jaso izanaren ziurtagiria.

Tarifa aplikatzeko arauak:

1. Ordaintzeko obligazioa zerbitzuaren eskaintza hasten den unean sortzen da.
2. Ordainketa emanaldi bakarrean burutuko da, Udalak ezarritako txanda bakoitzean izenematea egiten den unean.
3. Ordaintzeko obligazioa izenemandako haurren gurasoek, tutoreek edo arduradunek dute.

HAMARGARRENA.-Asignazioaren komunikazioa

Irungo Udalak parte-hartzaileei posta elektronikoz jakinaraziko die egokitu zaien talde pedagogikoa: ekainaren bigarren hamabostaldian uztailean parte hartuko dutenei eta utzailaren bigarren hamabostaldian abuztuan parte hartuko dutenei.

HAMAIKAGARRENA.-Talde asignazioaren ahalmena

Udal Euskara Arloak du talde osaketaren ahalmena helburuen arabera, programa eta Arloaren beraren irizpideen arabera, eta izenemate-orrian interesatuek azaldutako lehenetsuen arabera. Talde asignazioa egiteko orduan honako hauek hartuko dira kontuan: haurren adina (honen baitan haurrak mailaka bilduz: HH, LH 1 eta LH 2), hizkuntza eredu (A, B eta D ereduak), taldeko haur kopuruaren gehiengoa eta gutxiagoaren irizpidea, sexua (neska/mutila, talde orekatuak egon daitezten, hezkidetzatza ahalbideratzeko), izena (talde berean izen berekoak batera ez egoteko eta arreta pertsonalizatuta emateko).

Talde asignazioa ez onartzeak ez dakar prezio publikoa itzultzea.

HAMABIGARRENA.- Programan baja ematea

Parte hartzailearen batek **baja ematen badu ez zaio prezio publikoaren zenbatekoa itzuliko.**

HAMAIRUGARRENA.-Zentroetan sartzeko debekua

Gurasoek erabat debekatuta dute SOLAS JOLAS aurrera eramaten ari diren ikastetxe edo zentroetara sartzea.

HAMALAUGARRENA.-Ardura pedagogikoa

Enpresa esleipendunaren arduradunak eta koordinatzaile orokorrek izango dute programaren ardura pedagogikoa. Talde honek programaren arrakastarako egokitzat jotzen duena egingo du. Goian aipatutako taldeak haur partaideen portaeraren eta asistentziaren jarraipena egingo du eta aktibitatearen ordena, elkarbizitza eta funtzionamendua ziurtatzeko neurriak hartuko ditu. Talde horren lanaren jarraipena Irungo Udalak hartuko du bere gain.

HAMABOSGARRENA.- Izaera pertsonaleko datuak babestea

Datua pertsonalak jasoko dira euskara sustatzeko eskumenaren jardunean aktibitate hau egoki kudeatzeko, Irungo Udalaren Informazio Sistemaren sartuko dira eta soilik datuen babesaren alorreko legedian aurreikusitako kasuetan lagatuko zaizkie hirugarrenei.

Datuei lotutako sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak gauzatu ahal izango dira HAZ edo www.irun.org/sac Egoitza Elektronikoaren bidez. Erreklamazio bat aurkeztu ahal izango da ere Irungo Udalaren Datuak Babesteko Ordezkararen aurrean dpd@irun.org posta elektronikoan edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoan www.avpd.euskadi.eus

Era berean, Irungo Udalak SOLAS JOLAS programaren esleipenduna den enpresari beharrezkoak diren datu pertsonalak komunikatuko dizkio parte-hartzaileen behar bereziak behar bezala atenditzeko.

HAMASEIGARRENA.-Euskara ordezkararen ahalmena

Euskara Ordezkariek eskumena du Oinarriotan aurreikusi gabeko guztietan sor daitezkeen zalantzetan eta kasu berezietan erabaki eta programaren funtzionamendua behar bezala eramateko beharrezko akordioak hartzeko.

IRUNen, 2019ko otsailaren 20an

BASES REGULADORAS DEL FUNCIONAMIENTO DEL PROGRAMA SOLAS JOLAS 2019

PRIMERA.- Objeto de las bases

Es objeto de las presentes bases regular el funcionamiento de la colonia abierta SOLAS JOLAS 2019.

SEGUNDA.- Objetivo del programa

El objetivo de la colonia abierta SOLAS JOLAS 2019 es fomentar el uso del euskera y mejorar la actitud hacia esta lengua entre los niños/as escolarizados/as en **euskera o en modelos educativos bilingües (euskera y castellano o euskera y francés)**.

TERCERA.- Participantes

El SOLAS JOLAS 2019 es un programa dirigido a niños y niñas empadronados en Irún o de otros municipios que estudien en Irún en aulas de 4 y 5 años de Educación Infantil (nacidos en 2013 y 2014) y de 1º a 4º curso de Educación Primaria. Además, podrán participar los niños de **5º y 6º curso de Educación Primaria** que tengan diversidad funcional, **con límite de edad de 12 años**. Al objeto de cumplir el objetivo del programa recogido en la base segunda podrán participar en el SOLAS JOLAS los escolares que reciban su educación según los modelo D, B y A.

Del mismo modo, podrán participar aquellos escolares de los mismos tramos de edad que, siendo iruneses, cursen estudios en los centros educativos del País Vasco francés que oferten algún modelo **sólo en euskera o en euskera y francés**.

Los/as hijos/as de las personas divorciadas o separadas legalmente, aun cuando no estén empadronados/as en Irún, en el caso de que la persona que tenga su custodia durante todo el mes de julio o agosto esté empadronada en Irún, podrán participar durante el mes en el que esta tenga la custodia. Para acreditar la misma, habrá de aportarse un certificado o sentencia judicial.

CUARTA.- Calendario y horario de la actividad

La actividad se desarrollará del **3 al 30 de julio y del 5 al 30 de agosto** de 2019, los días laborables. El horario de la actividad es de 09:00 a 13:00 horas. No se admitirán cambios en dicho horario salvo situaciones justificadas. Cuando participen hermanos/as en el programa y tengan asignada plaza en centros diferentes, el Área de Euskera articulará mecanismos con las/los afectados, al objeto de ofrecer 15 minutos de margen, de 8:45 a 9:00 para así poder llegar todos/as a la hora de inicio de la actividad.

Cuando haya alguna modificación en el horario (salidas, festivales...) el equipo pedagógico lo comunicará con un día de antelación.

No obstante, todos los grupos tendrán un día de excursión especial. Ese día el horario será diferente: para los niños y niñas de Educación Infantil de 09:00 a 14:30 y para los de

Educación Primaria de 09:00 a 17:00. El equipo pedagógico comunicará el día con la debida antelación.

QUINTA.- Periodo de preinscripciones y de reclamación

Para participar en la colonia abierta SOLAS JOLAS 2019 las **preinscripciones** deben realizarse del **4 al 15 de marzo**, ambos inclusive. La preinscripción se hará a través de la **web corporativa www.irun.org**, en los **terminales de autoservicio del SAC** todos los días de 8:00 a 22:00, o llamando al teléfono 010/943 50 51 52 en horario de 8 a 20 h de lunes a viernes.

Realizar la preinscripción supone la aceptación íntegra de estas bases.

Al realizar la preinscripción deberán facilitar los siguientes datos del niño/a que desee participar en el programa: Nombre y apellidos, dirección, **correo electrónico, teléfono móvil**, turno elegido (julio, agosto o ambos), centro, ciclo y modelo lingüístico en que el niño curse sus estudios y centro o centros elegidos para el Solas Jolas. El interesado/a indicará si el niño tiene diversidad funcional y a efectos del sorteo si, en caso de hacer la preinscripción para más de un miembro de la unidad familiar, se inscriben todos juntos o de manera individual.

Es muy importante facilitar un **correo electrónico y un teléfono móvil** que se utilizarán para todas las comunicaciones. En caso de no facilitarlos, el interesado/a tendrá que estar atento/a a los plazos y a las comunicaciones sobre cualquiera cuestión referida al programa.

Asimismo, quien realice la preinscripción para el mes de julio indicará si quiere participar en la **repesca**, es decir, **si está dispuesto/a a participar en cualquier centro**.

Para desarrollar la actividad será necesario que haya un número mínimo de preinscripciones por centro y por ciclo educativo: 10 preinscripciones en Educación Infantil y 12 en el primer y segundo ciclo de Educación Primaria. No obstante, por necesidades organizativas dichos cupos pueden variar.

Si en algún centro ofertado por el Ayuntamiento para el SOLAS JOLAS no se llegase al número mínimo de preinscripciones el ayuntamiento ofertará otras posibilidades a aquellos que hubieran elegido dichos centros.

La lista provisional de admitidos al sorteo se expondrá al público en la página web corporativa www.irun.org el día **25 de marzo**. La lista, además, se podrá consultar llamando al teléfono 010/943 50 51 52 en horario de 8:00 a 20:00 h. Los y las interesadas tendrán de plazo hasta el **5 de abril** para efectuar las **alegaciones** que consideren oportunas. **Las listas definitivas para el sorteo** se harán públicas el **11 de abril** a través de los medios citados arriba.

Las preinscripciones realizadas fuera de plazo pasarán al último lugar de las listas de espera. No se admitirá ninguna preinscripción a partir del 3 de mayo salvo que sean necesarias para completar los grupos.

SEXTA.- Sorteo:

La participación en este programa municipal se determinará por SORTEO entre las preinscripciones hechas dentro del plazo y admitidas tras las correspondientes comprobaciones de datos, publicación de listas y periodo de reclamación.

El SORTEO, que será público, se realizará el **15 de abril**, a las 12:00 h, en la Sala de Sesiones del Ayuntamiento (San Juan Harria plaza, 1 Irun).

El sorteo se realizará de la siguiente manera:

a.- Se llevarán a cabo dos sorteos: uno para asignar las plazas de julio y otro para las de agosto. Se comenzará por el mes de julio.

b.- Tendrán **prioridad** los niños/as que no hayan participado nunca o los que el año pasado se inscribieron, no les tocó plaza en el sorteo y no participaron en el programa.

c.- Cada ficha de preinscripción al sorteo se adscribirá a alguno de los siguientes grupos:

GRUPO 0:
NIÑOS/AS CON DIVERSIDAD FUNCIONAL

GRUPO 1:
EDUCACIÓN INFANTIL (aulas de 4 y 5 años), MODELO D

GRUPO 2:
EDUCACIÓN INFANTIL (aulas de 4 y 5 años), MODELOS B, A

GRUPO 3:
EDUCACIÓN PRIMARIA 1º CICLO (1º y 2º de primaria), MODELO D

GRUPO 4:
EDUCACIÓN PRIMARIA 1º CICLO (1º y 2º de primaria), MODELOS B, A

GRUPO 5:
EDUCACIÓN PRIMARIA 2º CICLO (3º y 4º de primaria), MODELO D

GRUPO 6:
EDUCACIÓN PRIMARIA 2º CICLO (3º y 4º de primaria), MODELOS B, A

c.- Las preinscripciones serán numeradas automáticamente y se elaborará una lista por cada grupo de los arriba citados.

d.- La mecánica será la siguiente:

- Se determinará en primer lugar el ciclo educativo desde donde comenzará el sorteo. Para determinar el orden ulterior se tendrá en cuenta esta correlación y se partirá en sentido ascendente desde el ciclo seleccionado:

- Educación Infantil, modelo D,
- Educación Infantil, modelos B, A
- Educación Primaria 1º ciclo, modelo D
- Educación Primaria 1º ciclo, modelos B, A
- Educación Primaria 2º ciclo, modelo D
- Educación Primaria 2º ciclo, modelos B, A

El sorteo arrancará del ciclo determinado al azar. Es decir, si el azar determinase comenzar por *Educación Primaria 1º ciclo, modelo D*, el ciclo que se sorteará a continuación sería *Educación Primaria 1º ciclo, modelos B, A*.

- Una vez establecido el orden de los ciclos se asignará un número por cada grupo. Este número corresponderá al número de ficha de preinscripción a partir de la cual (ésta incluida), en sentido ascendente, se adjudicarán las plazas existentes en base, primero, al centro de elección y una vez cubiertas las vacantes en base al centro de reserva si así se hubiese indicado en la preinscripción.
- Se comenzará por sortear y asignar la plazas del grupo 0. Si en la preinscripción de los niños/as de este grupo que han obtenido plaza constara la preinscripción de algún hermano o hermana, éste obtendrá plaza automáticamente.
- A continuación se sortearán el resto de las plazas en el orden establecido, priorizando a los niños/as que no han participado nunca o el año pasado se inscribieron, no les tocó plaza en el sorteo y no participaron en el programa. No obstante, tener prioridad no garantiza la obtención de una plaza.
- Si no hubiese plazas en el centro de elección, las preinscripciones pasarán a la lista de espera de los grupos y centros.
- En caso de haber inscrito más de un miembro de la unidad familiar en la misma ficha de preinscripción y uno de ellos obtuviese plaza, el resto de los miembros obtendrá plaza de modo automático, **siempre y cuando haya plaza para todos ellos.**
- Una vez se hayan cubierto todas las plazas, los que hayan elegido "repesca" pasarán a la "**lista de espera de repesca**" y tendrán prioridad sobre las listas de espera de los centros. Aquellos que **no** hubieran elegido "repesca" pasarán a la "**lista de espera de los centros**" elegidos. **Las bajas**, se cubrirán por **riguroso orden de lista de espera de la repesca** en primer lugar y de **las listas de espera de los centros a continuación.**

Los resultados del sorteo se expondrán al público en la página web corporativa www.irun.org el **15 de abril** de 2019, a partir de las 15:00 h. Además, se podrán consultar llamando al teléfono 010/943 50 51 52 en horario de 8:00 a 20:00 h.

El Área de Euskera decidirá la oferta de plazas para el SOLAS JOLAS 2019.

SÉPTIMA.- Pago del precio público e Inscripción definitiva:

Una vez efectuado el sorteo, el Ayuntamiento de Irun enviará a los beneficiarios con plaza un correo electrónico con un código de inscripción y el enlace para proceder a la inscripción definitiva mediante IRUN TXARTELA u otro certificado electrónico.

El pago y la inscripción definitiva se harán por internet a través del servicio SAC24h (www.irun.org/sac) del **23 de abril** hasta las 14.00h del día **3 de mayo** de 2019. También podrán hacerse en las terminales de autoservicio del SAC (C/ San Marcial, 2) todos los días de 8:00 a 22:00, excepto el 3 de mayo, día en el que solamente se podrán hacer hasta las 14:00.

Aquellos que habiendo obtenido plaza no vayan a participar en el programa deberán comunicar al Ayuntamiento su renuncia expresa a la plaza durante el periodo de inscripción definitiva.

El Ayuntamiento de Irun podrá solicitar un informe detallado acerca de la situación de los niños y niñas del grupo 0 que formalicen la inscripción definitiva con el objetivo de favorecer la integración y adaptar la programación a cada caso.

Así mismo, podrá solicitar a aquellos participantes, que estando empadronados en Irun, cursen estudios en los centros educativos del País Vasco francés, que oferten algún modelo sólo en euskera o en euskera y francés, un justificante del centro indicando el porcentaje de euskera utilizado en sus estudios.

OCTAVA.- Repesca, listas de espera e inscripción fuera de plazo:

Finalizada la inscripción definitiva, y en el caso de que queden plazas libres, el Área Municipal de Euskera asignará las plazas disponibles entre los niños/as que no hubieran obtenido plaza y que estén en la lista denominada **“repesca”**, en primer lugar, entre los niños/as de las listas de espera en segundo lugar y, finalmente, entre los inscritos fuera de plazo.

En el caso de hermanos/as que estén en las listas de espera y hubieran realizado la preinscripción de manera conjunta, si uno de ellos consiguiera plaza, los demás hermanos/as conseguirían plaza de manera automática, **siempre y cuando hubiera sitio para todos**. Pudiera suceder que, por estar las plazas ocupadas, no hubiera plaza para todos o si la hubiera fuera en centros diferentes.

El proceso para hacer las inscripciones definitivas será el mismo que en las inscripciones iniciales, según se recoge en la base sexta.

Una vez finalizado el segundo periodo de matriculación definitiva, si todavía quedaran plazas libres, el Área de Euskera anunciará en qué centros y para qué franja de edad serán esas plazas y determinará el plazo para realizar dicha matriculación.

NOVENA.- Precio público:

El precio público del SOLAS JOLAS 2019 es el aprobado por el Ayuntamiento:

A.- POR "SOLAS JOLAS"

I. TARIFA

Este precio público se percibirá de acuerdo con la siguiente tarifa:

Inscripción de un <u>único miembro</u> de la unidad familiar.	72,85 € Por mes y participante
<u>Dos miembros</u> de la unidad familiar inscritos en el mismo servicio.	58,25 € Por mes y participante
<u>Tres miembros de</u> la unidad familiar inscritos en el mismo servicio.	43,70 € Por mes y participante
<u>Cuatro o más miembros</u> de la unidad familiar inscritos en el mismo servicio.	29,10 € Por mes y participante

1. Bonificaciones

Se reconoce una bonificación del 75 % de la cuota general a favor de aquellas personas cuya Unidad de Convivencia es perceptora de la Renta de Garantía de Ingresos (R.G.I.), que no será acumulable a otras exenciones o bonificaciones.

2.- Tramitación de las bonificaciones.

Podrán beneficiarse de la bonificación establecida en la tarifa aquéllas personas que acrediten los siguientes requisitos:

- Realizar la inscripción al programa SOLAS JOLAS conforme a las condiciones y procedimientos habilitados por el Ayuntamiento de Irun.
- Figurar como beneficiario/a de ayuda de Renta de Garantía de Ingresos.
- Tanto el participante en el programa como el titular beneficiario/a de la ayuda RGI deberán estar empadronados/as en Irun.

La solicitud de bonificación se realizará mediante indicación expresa conforme a lo establecido en el formulario de preinscripción al programa SOLAS JOLAS.

La persona beneficiaria solicitante de la bonificación (perceptora de RGI) deberá figurar en la hoja de inscripción provisional como padre, madre o tutor/a del participante inscrito/a.

Una vez asignada la plaza, el/la interesado/a, **deberá autorizar al Ayuntamiento de Irun** la verificación de la percepción de RGI. De no hacerlo así, el o la interesada deberá presentar justificante del cobro de la percepción de RGI.

Normas de aplicación de la tarifa:

1. La obligación de pago nace en el momento en que se inicie la prestación del servicio.
2. El pago se realizará, en una sola entrega, en el momento de formalizar la inscripción en cada uno de los turnos que establezca el Ayuntamiento.
3. La obligación del pago recae sobre los padres, tutores o encargados de los niños/as inscritos.

DÉCIMA.- Comunicación de la asignación

El Ayuntamiento comunicará a los interesados/as durante la segunda quincena de junio (a los participantes en el turno de julio) y de la segunda quincena de julio (a los participantes en el turno de agosto) el grupo pedagógico al que ha sido asignado el hijo/a.

UNDÉCIMA.- Potestad en la asignación

El Área municipal de Euskera tendrá la potestad de formar los grupos conforme a los objetivos y criterios tanto del programa como del Área y teniendo en cuenta las preferencias expuestas en la hoja de inscripción por los participantes. La asignación se hará teniendo en cuenta la edad (repartiendo a los niños/as por ciclos: E.I., E.P. 1 y E.P. 2), modelo lingüístico (modelos A, B y D), máximo y mínimo por grupo, sexo (grupos parejos por sexo para poder coeducar) y el nombre (para que no coincidan niños/as del mismo nombre y así dar una atención más personalizada).

No aceptar la asignación de grupo no supone la devolución del precio público por servicio.

DUODÉCIMA.- Baja en el programa

Si algún participante **se da de baja** en el programa no **se le devolverá el importe del precio público**.

DECIMOTERCERA.- Entrada de los padres a los centros

Queda terminantemente prohibido a los padres acceder al colegio o centro donde se desarrolle el SOLAS JOLAS.

DECIMOCUARTA.- Responsabilidad pedagógica

El equipo compuesto por los coordinadores generales y el responsable de la empresa adjudicataria tiene la responsabilidad pedagógica del programa. Este equipo hará cuanto crea conveniente para el buen funcionamiento del mismo. El comportamiento y la asistencia de los niños/as participantes del programa será objeto de seguimiento por parte del equipo arriba mencionado, el cual podrá tomar las medidas pertinentes al respecto para asegurar el buen orden, la convivencia y el funcionamiento de la actividad. El Ayuntamiento se responsabilizará del seguimiento del trabajo de dicho equipo.

DECIMOQUINTA.- Protección de datos de carácter personal

Los datos de carácter personal se recogerán en ejercicio de la competencia municipal de promoción del euskera para la correcta gestión de esta actividad, serán incluidos en el Sistema de Información del Ayuntamiento de Irun y serán cedidos a terceros únicamente en los supuestos previstos en la legislación en materia de protección de datos personales.

Las personas interesadas podrán ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, limitación y oposición a través del SAC o la Sede Electrónica www.irun.org/sac. También podrán presentar una reclamación ante el Delegado de Protección de Datos del Ayuntamiento de Irun en el email dpd@irun.org o ante la Agencia Vasca de Protección de Datos www.avpd.euskadi.eus.

Así mismo, el Ayuntamiento de Irun comunicará a la empresa adjudicataria del Programa SOLAS JOLAS los datos personales necesarios para poder atender correctamente las necesidades específicas de los participantes.

DECIMOSEXTA.- Facultad de la Delegada de Euskera

La Delegada de Euskera está facultada para resolver los casos de duda y casos especiales que puedan presentarse en todo lo no previsto en las presentes Bases, así como para adoptar los acuerdos necesarios en todo lo referente al buen funcionamiento del programa.

IRUN, a 20 de febrero de 2019